

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

159n. Zenbakia Urterrilla
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AUZOKIDEEN ARTEAN, ERDI-ERDIAN

ISIDOR ETXEBERRIA
EUSKAL-ZALEA
IRAKASLEA
IDAZLEA

BERTSOETAN

GORROTOA

Gorrotoak dakarsku odolera edena
su-garrekin erretzen gure bular barrena.
Illunperik illunpe doa ego itsua
nun bere uluentzat aurkituko lekua.

Joanak zulokatzen dabilkigu eztena
ta barruko Ioiekin usteltzen datorrena.
Aragian dabilko tximur latzen doinua
eta zan zikiñetan noiz lerko odol-batua.

Zer dogu gorrotoa? Gaiztoeta maltzurra
gure bizia joten bidertzean eskua,
gogor eta sendoa. Orixe gorrota.

Kantu zikin gorri bat da iraintzen giroa,
ustel sundaz betetzen ametsen erreinua,
uluka eriora garoazan guzurra.

ERREGUA

Mendi gainetan galdutako
kanpandorreen durrundia
bezelaxe noa ni ere,
tupiki illaren melodia,
dilindalan dilindalanka,
eskiloi-ots geldi geldia.

Ba datorkit lanbro arrezko
oyala dirudin gandua
neure egun argiak estaltzen.
Belaño illun baltz ketsua
apurka zikintzen osoro
nire begi bien tindua.

Au bai urte pillo maltzurra!
Ainbat aizto zuriz biotza
zulokatzen dabilkidana!
Ene zauritzar au, ain otza,
ba doakit odolak zear
-ontzi zaar- noiz joko arkaizta.

Bildur eta neke xamarrok
ba naukoe apur bat joa
ta larrosa gozoagoen
pozbidez nai neuke agoa.
Erosta au poz biur ba litzakit
neure esku bion betekoa!!

AU BAI ARRIGARRIA

Nire pozaren begi urdiñek barrez dira,
dizdiz bete, nire gelako leio itxia
bat-batean zabaldu danean eguzkira.
Au mirari bitxia!

Aspaldi ez eben ikus txoriño nabarren
egada ain nabarmen, ain zoli eta ain bizkorrik,
ez ere elorriek arantzetan ekarren
udabarri mozkorrik.

Ez ere garitzen olaturik olatuak
t'urre pipitak itxas orian jolasean,
ezta ere maats mozkor eta odol uztuak
ontzian dizdizean.

Baita ere aaztuta larrosen gorria
t'adar arteko orri alkar jana musuka
ta goizbarriak agoan ekarren irria
egunari agurka,

Begi urdinok dan on euken aantzia
eta gela ertzian itsu zan nire poza,
leenik, ez gerorik gabeko aulesia,
uts betearen lotsa.

Ikus dot txoriak egoetan daroala
poza t'arantzetan ba dala udabarria
t'ale txiki baten ogia eginaala.
Au bai arrigarria.

Gaurtik gero ba noa ni gelatik kanpora
argi golpez astinduz neure soñaren otza
t'izarrak agurtzera noa bidean gora
agoan bi larrosa.

A. BIDAGUREN

BIDAGUREN ETA ARRIEN'DAR ANJEL IL DA

ZER'en zenbaki au irarkolan dagoala eldu jaku barri samingarri bat: Abenduaren 17'an Galdakano'ko gaiso-etxean il dala Anjel Bidaguren gure aldizkari onetako idazle eta olerkari trebea.

Irakurle guztiai barri au emonaz batera, gure samintasuna agertzen dautsegu bere etxeokoi.

Zuzendaritzak

1992 URTE BARRIA

BOSTEUN URTE

Sartu gara urte barri onetara. Urte-urrenak eta urtebarruko jazokizunak ospetsu egingo dabe urte au. Baiña gaurko onetan iru jazokizunen urte-urrena ospatzea aztertu nai dogu.

AMERIKAK AURKITZEA

Lenengo urte-urrena, Kolon gidari zala, Amerikak aurkitzearena da.

Jazokizun arek kondairan zelako eragiña izan eban ez dogu aitzu bear, baiña ez da gure elburua jazokizun a aztertzea, orain egiteko ustea daben urte-urrena baiño.

Gauzak aundikiro egiten dira zaleak asko eta olako bide bat artu da Sebilla'n egiteko dan agerketa orretan: Aspaldion danean eragilten dira millak milloioak eta agerketa orretan be bai.

Baiña amerikatar askok, batez be inditarren aide dagozenak, ez dabez ontzat artzen ospakizun orreik: Orduan eta geroago ara joan ziranak artu eben jokabidearen okerkeriak agertzen dabez: Iditarren aberriak zapaltzea, ango aberastasunak oker-bidez eskuratzea, izkuntza, erlejiñoa ta emengo jakintza goitik bera gogorkeriz sartzea...

Arazo orreik aztertu bear litzakez barru-barrutik eta oker egindakoen parkamena eskatu, bakea sortzeko.

Gaiñera, askatasuna azken baten lortu ebeen laterri areik, asko, gaur gosez bizi dira eta zelan onartu leikee olako eralketak egitea, eurak aurkitze orren ondorenez, gosez ilten dagozanean? Obeto litzakean or erabilten diran millak milloioak gosedun erriai laguntzeko erabili ba'litzaz.

LENENGO GRAMATIKEA

Isillago geratzen dan beste urte-urren bat ospatzen da aurren: Antonio Lebrija'k idatzi eban gaztelaren lenengo elizti edo gramatikearen bosteungarren urteurrena.

Sarreran diño idazleak bere elburua zein zan: Laterrien Laterri edo "Imperio" batek izkuntza bakar bat bear ebala. Ikusten dan lez, gaztelera batua. Eta elburu on lortzen alegindu dira gaztelarrak, erdi-

ugarte onen barruan eta Ameriketean, emen euskerea ilteko alegiñak eta an inditarren izkuntzak iltekoak eginda.

Gure Larramendi'k egin eban lenengo eliztiak, "El imposible vencido" edo "Eziña egiña" k, ez eban izan olako elbururik. Olako elburua izan leikee, maila txikiago baten, batuzaleak: "Euskalerra bat eta euskera bat" aldarrikatzen dabe oneik, eta lortu be nai dabe, euskalkiak zapalduz, dana bardinduz, Lebrija'ren antzera.

ATZERRITARRAK KANPORA: BATASUNA

Irugarren urte-urrena, Mauroak Erdi-Ugartetik kanpora atareak izatearena da.

Zazpireun urteko burrukaldiak izan ebezan España'tarrak mauroen aurka eta, orain bosteun urte, lortu eben batasuna, mauroak Erdi Ugartetik kanpora aterata.

Lortu zan batasun orretan izan gendun zer-ikusia euskaldunok be: Errege Katolikuak "Aberri Berezia" edo "Nacion Separada" esaten eutson Bizkaia'ri, eta guzur asko ta aundiak esan ba'ebazan be, orretan egi aundia esan eban.

Dana dala, Jaun lez bera artuta geunkalako-edo, batasun orretara sartzen gintzazan, zelan edo alan, gu be, ezkontza baten bidez lortutako batasunera. Baiña erri-eskubideak galdu barik.

Orduan asita lortu zan batasuna, orain doala esan lei nasaitzen, okerrez egin doguzan bideetan atzerantza egiñez. Elduko al gara antxiñakoen zentzunera!

**BARANDIARAN ETA AIERBE'TAR JOSE
MIGEL ABADE JAKITUNA IL DA**
(1991-12-21)

Euskalerraian sustraien billa ainbeste lan egin ondoren, laster eun eta bi urte beteteko zala, joan jaku Aitaren etxera guztiok ezagutzen eta maitatzen dogun Jose Migel Barandiaran. Betiko zorionean artu dagiela guztion Aita Onak eta guk here euskal-zaletasuna ta jakituri-zaletasuna geuganatu dagiguzala, gure erriak here nortasunean eta bere fedean aurrera egin dagian.

ZUZENDARITZAK

DEUSTU'KO IKASTETXE NAGUSIAN MAI-INGURUA (Bizkai'ko euskerea gai dala)

Abenduaren amabigarren egunean, Deustu'ko Ikastetxe Nagusian Mai-Inguru oargarri bat izan zan, Bizkai'ko euskerea gai zala. Ekintza au gertatu eta antolatu ebenai esker ona agertzen dautsegu idazki onen bidez.

Maiaren eratzaille Patxi Altuna aita josulaguna izan zan. Zeatz eta zorrotz egin eban bere lana, naizta erreza izan ez. Eta erreza ez zala izan esan bear, kidekoak asko izan ziralako eta esanbearrak edo esangurak be ez

Patxi'ren esker-eskuman beste sei mai-kide izan ziran eta bakoitxari amar minutu emon jakozan bere gai-arloa azaltzeko. Gero guztientzat itaun bat eta maian ez egozanen itaunak.

Joseba Lakarra'k: Bizkaierea len zelakoa izan zan azaldu eban. Jakiña dan arazo erantzun bako bat: Euskalkiak euskera batetik sortuak diran eta alkarragandik urrintzen doazen ala asieratik ezbardiniak izan eta alkartzera doazen. Geienak uste dabenez, euskera batetik sortuak dirala esan eban. Gero Araba'ko euskerearen arazoa aztertu eta euskalkien balioa otzitu egin eban, euskera osoarena berotzeko. Emen esan eban olako zerbait: "Bizkaiko euskalkia galdu an-en ajolarik ez, euskereak bizirik urten ezkerro".

Alfonso Irigoien'ek: Lenagoko idazkiai buruz egin eban berba, antxiñako kristiñau-ikasbideetatik asi eta gaur arte. Batua ez doala, esan eban, euskalkien aurka, baiña berak batuz egin eban berba.

Abel Muniategi'k: Bizkai'ko euskereak erri-zaintza edo "administraziñoa" daukan lekua aztertu eban, mailla ezbardiniak kontuan artuta: laterri-erakundeetan, Jabetzadun Alkartearenetan, eskualdekoetan eta Aldundi-maillan, Udaletxeetan, gudarostearen erakundeetan, epaitegietan... Batzutan erabilten da Bizkai'ko euskerea, baiña gitxi eta bizkaieraz idazten daben Udal-Batzak be ez dira asko, Bermeo'koa ta besteren bat.

Erroman Berriozabal'ek: Euskalkien eta batuaren arteko goraberak aztertu ebazan. Erabillera erreza

indartu bear da eta euskalkia ondo ezagutzen danean sartu batura. Batua ez dago euskalkien aurka eta au sarritan entzuten dan gauzea izan arren, bizkaiko euskerea ez da arloteen izkuntza.

Laura Uruburu'k: Ikastegietan bizkaieraa zelan dagoan aztertu eban eta jokera bi agertzen dirala esan eban, gitxiengoaren jokera dana bizkaieraz irakasten dabenena eta geiengoarena dana batuz irakasten dabenena. Arlo orretara politika-jokoa be sartu da eta bizkaieraa erabiltea atzerakuntza lez agertzen dabela batzuk eta alderdi politiko bateri ezarri, batua erabiltea ostera aurrerakuntza lez agertu eta beste alderdi bateri ezarten jakola. Ikastegi batzutan txiki-txikitatik bearzten dira umeak batuz berba egitera. Itzaldi labur onen ostean entzun ziran lenengo txaloak.

Igone Etxebarria'k: Bizkaieraa Euskal Irrati ta Telebistan zelan dagoan agertu eban. Oneri be txaloak jo jakozan azkenean. Ederto egin eban berba.

Eratzaillea ta seirak batera kontuan artuta, zarpiretatik lau izan ziran bizkaieraz berba egin ebenak eta iruk egin eben batuz edo gipuzkoeraz.

Ez dogu edesti au amaitu bearro, beste au esan bank: Entzuleak asko izan zirala, bear ba'da irureun inguru, eta geienak gazteak.

Giroa oso ona izan zan baiña maikideai azkenengo itauna egin jakenean, Bizkaierearen naiz euskera osoaren etorkizuna zelakoa ikusten eben izan zan galdera, geienak etorkizun illuna ikusten eben, Patxi Altuna bera agertu zan oso baiezkor.

Eta entzuleen itaunen artean gauza jakingarriak izan ziran. Guztiak aitatu ezin diran ezkerro, bat gogoratuko dogu: Bizkai'ko euskereak aurrera egitea nai ba'dogu idatzi egin bear dala bizkaieraz. Ez dogu egokitzen artzen bizkaitar askok artu dauan jokabidea, euren idazlanak (aldizkarietan, liburuetan...) batuz beti agertzea.

JARRAITZAILE

Jesus'ek artzai onaren itxura artzen dau eta bere ondoren jarraitzeko deia egiten digu. Bere lenengo jarraitzaileek, euren ontziak laga, eta Jesus'en ondoren abiatu ziran. Alaxe egin eben Simon eta Ander'ek, Jon eta Santi'k.

Nora dei egiten dausku Jesus'ek?

Azken batez, zorionera.

Dei on neuretzako da. Neure izenagaz deitzen nau bere bidean jarraitzeko. Baña, neure bidea, Jesus berbera da. Bere ondoren ibiltzea, bere bidean ibiltzea, berak egin zitunak egitea da; berak erabili zuan bizitza erabiltzea.

Jainkoaren Erreinua iragarri zuan. bere inguruan maitasuna egintzetan zabalduz. Eta ori, bere laguntzarik gabe, ez da beti gauza erreza izaten; baña, bera dogu bide-lagunik onena eta, bere bidea jarraitzean, pozez betezen gaituena.

Galilea'ko itxas-bazterrean, Jesus'ek bi anai, Simon eta Ander. ikusi zituan arrantzarako sareak botatzen eta onela esan eutsen:

Laga oiek eta etorri neurekin eta giza-arrantzale egingo zaituet.

Sareak eta itxas-ontzia laga eta Jesus'en ondoren joan ziran.

Aurrerago, beste bi anai, Jon eta Santi, sare-konponketan:

—Etorri zeurok ere neurekin.

Egun aretan Jesus'ek bere lenengoko lau ikasleak aukeratu ebazan.

Neu ere berak aukeratu ninduan. nere bataio-egunean. Eta, gaur deika daukat. Berri Onaren bidez, bere antzeko izan nadin nere bizitzako arazo guztietan. Ona zar zion Michael Jakson abeslariak 1988'garren urtean. Dagonillaren 11'an, HOLA deritzan aldizkarian:

—Nere amak Jainkoarenganako maitasun-garra sartu zidan biotzean, nik beti zaindu dodana. Baita ere, berak erakutsi eustazan dantzarako eta abesteko dodazan gaitasunak, Jainkoaren doaiak dirala.

Eta, Jesus da gure Jainkoa, Aitak lurrera bidaldutako Semea, berari jarraituz, salbamena iritxi dezagun.

"Jauna. begiratu didazu / nere izenez zuk ni deitu nauzu ondarrean utzi det nik ontzia / zurekin itxaso berria".

TALDEAN

Gizakia, gizon eta emakume, taldean bizi izateko egiña da: famili batean sortzen gera eta erri batean bizi gera. Ez gera perretxikuen antzera bakardadean sortu, banan-banan eta iñorekiko artu-emanik gabe. Eskolara taldean joaten gera; futboleko taldean egiten dogu; elizan otoitzak taldean egiten ditugu.

Jesus'ek badu berak sorturiko talde bat ere. Ikasleak aukeratu zitun eta oiekin Eliza deritzan taldea sortu zuen. Bere jarraitzaile izan nai ba'degu, talde orretan jarrai bearke diogu. Apostoluei eman zien talde on aurrera eramateko agindua: "Zoazte munduan zear eta nere Berri-ona zabaldu baztar guztietara nere ikasleak egiñez".

Gu Jesus'en jarraitzaile ba'gera asmo ori aurrera eramaten lagundu bearke diogu; baña ori lan gaitza da eta zaila guretzat bakarka egin nai ba'degu; taldean egiten ba'degu, ordea, bere laguntza izango degu.

Jesus'en izenean alkartzen geranean Jesus berbera dago gurekin bat egiñik. Onela dio (Mat. XVIII, 19-20).

"Egia esan, berriz ere: zuetan bik lurrean alkar jartzen ba'dute, edozer eskatzeko. zeruko Aitak emango die. Bi edo iru nere izenean bildurik ba'daude, an nago Ni, aien erdian".

Taldean jaiotzen gera sinismenerako, taldean bizi degu gure sinismena eta taldean aurkituko deal) geure azkenmuga. Talde ori da Kristau-taldea edo Eliza.

Nik zer eskeintzen diot taldeari? Zer ematen diot? Nere lana, nere otoitza, nere laguntza...

Eta taldeak zer ematen dit neri? Jesus berbera arkitzen det, Goimaitasun-Arnasarekin batean, bere otoitza, okerkerien barkamen eta pakea, bere babesa, bere itzala eta aterpea... "Egunero zuekin nago munduaren azken egunerrate" esaten digu Jesus'ek. "Jarrai nere ondoren, nere zama ariña da...".

"Goazen elkaturik piztu-ta fedea, argitan zabalik maitasun-bidea".

ASKATASUNAREN SAGARRA

Pentzatu egizu mendian zabiltzazala, eta zelai loretsu baten erdian, sagar arbola eder bat ikusten dozula eta arbola orren adar batetik, sekula ikusi ez dozun sagar zoragarri bat dindilizka.

Ikusiaz batera, erabagi bat artzen dozu, sagar zoragarri on zuretzat izan bear dala. Baiña zeu eta sagar arbola orren bittartian, oztopo aundi bat dago.

i Orma bat!, iru metro goruzko eta metro bat lodierako orma gogor bat, eta bere zabalerari ez jako azkenik ikusten.

**

i Zer egingo zenduke sagar on zureganatzeko?
Norbaitek erantzungo leuke: Al danik ariñen sagarra neureganandu eta jan.

Eta nik erantzun: Bai, ondo dago, baña... ¿zelan ?

Biderik motzena sagar arbolarengana zuzen joatea da, baña beti ormarekin topo egingo dozu, eta prisaka joaten bazara, korrika eta abar, ainbat eta golpe gogorago ormarekin artuko dozu. Orma on zeure burua apurtuta lurrean geratuko zara laguntza eske.

Nik ostera, beste ekintza batzuk antolatuko neukez, sagar zoragarri on neureganatzeko.

Biderik motzena aide batera utziko neuke, eta beti neure elburua zein dan aztu bank, naita bidea luzeagoa izan, eta momentuz sagar arbolatik urrundu, beste bide bat artuko neuke.

Orma orren aide baterantz edo besterantz joango nintzake, atea edo leio baten billa sagar arbola dagoen zelaira pasatzeko.

Leioa aurkittuko ba'neu, naita txikia izan neure gorputzaren lodiera bertatik pasatzeko, ba, leio azpian jan bank geratuko nintzake zulo txiki orretatik pasatzeko aña neure gorputza argaldu arte.

Naiz eta lenengo gosea pasa, otza, nekea eta abar, azkenean leiotik pasatuko nintzake, eta neure elburua lortuko neuke. ASKATASUNEZKO SAGARRA neuregananduko neuke, nai ta bidea oso luzea eta neketsua izan.

Atea aurkittuko ba'neu, eta ate on itxita egongo ba'litz, atearen giltza nor daukan galdetuko neuke, nor dan jakiñaz batera, bereganatu eta alkar izketa eta konponketaren bidez, ta ez gogorkeriz edo indarkeriz, giltzaren orde berak eskatzen daustena aztertuko neuke, eta konponketa on bategaz, giltza neureganatu, atea zabaldu, zelaira pasa eta ASKATASUNEZKO SAGARRA neureganatu. Au egiteko denpora asko beariko neuke, baña neure elburua lortuko neuke, iñori negarrik eragin barik.

Baña ez aterik, ez leiorik ez baneuke aurkittuko, eskillara baten billa asiko nintzake orma on gainditzeko.

Orretako eskillararen jaubearekin izketan asiko nintzake, zerbaiten orde bere eskillara neureganatzeko, eta ez baleuztake lagako, neuk egingo neuke eskillara bat.

Denpora beariko neuke, baña neure elburua beti gogoan eukita, azken baten, ASKATASUNEZKO SAGAR zoragarri on neureganatuko neuke. Naiz eta norbaitek bittartean "traidorea" naizela, edo neure lurra saldu egin dodala esan.

Au esaten dabenak biderik motzena artu eta ormarren kontra joan bein eta barriro eta bere burua apurtuta lurrean geldituta gero, neure laguntza eske etorten dira euren zauriak osatzeko.

Norbaitek esango leuke: gauza orreik lelokeri utzak dira, badago beste bide motz bat orma on gainditzeko, eztanda bategaz orma apurtu eta zelaira pasatuko nintzake.

Nik erantzungo neuke: orma pasatuko zenduke bai, baña ez zenduke ez zelairik, ez sagar arbolarik ez ASKATASUNEZKO SAGAR zoragarri aurkittuko. Eztandak dana deseginda utziko leukelako, negarra eta malkoa baño besterik ez zenduke aurkittuko.

Askatasuna lortzeko, biderik motzena ez da beti izaten biderik onena.

JOSU SOLABARRIETA
"URRUTXE"

JAUNGOIKOAREN BILLA

RAISA ETA JACQUES MARITAIN

Ez-sinistetik sinismenerako bidea, sarri askotan luzea eta nekez bete izaten da. Baiña gogo onez argi-billa dabillanak, azkenean Jaungoikoa aurkitu, eta barruko zorionez beteko da.

Adibide bat.

Jacques eta Raissa Maritain, senar-emazteak, neke eta larritasun askoren ondoren, zelan azkenean Jaungoikoa aurkitu eben, orain ikusiko dogu.

Raissa Andreak berak esango dausku zelan gertatu zan.

Amasei urte nituan... Gaztetan gauzak garbi ikusten dira, eta ni be neure buruz pentsatzen asi nintzan.

Paris'eko unibertsitatean ikasle nintzan, Sorbona izen andikoan... 1914 garren guda aurreko urteak ziran. Garai aretan zientziak aurrerapen andiak egin ziran, eta nik, beste jakintsu askok legez, zientziaz dana eskuetan euki-ko nebala, uste neban.

Geologia ikasi neban, baita fisiologia, botanika eta enbriologia be... Onan izadian –naturan– ZER jazoten zan jakin al izan neban. Baiña ez zan niretzat naiko. Nik izadian ZER gertatzen zan bakarrik ez, nik baita ZERGATIK gertatzen zan jakin gura neban.

Bein, irakasle bateri –Lapike izenekoa– itandu neutsan: "Jauna, zuk enbriologian arrautza batetik txita zelan ateratzen dan erakutsi dauskuzu, baiña jakin gure neuke, ZERGATIK edo NOK emoten dautson arrautza orreri, ainbesteko maillatan berotu ezkerro, txita ateratako indarra?"

Eta irakasleak erantzun eustan: "Zuk on ala dala jakin egizu. ZERGATIK on olan gertatzen dan, zure jakin-nai ori, mistikuen amets zoro bat, besterik ez da". Erantzun zozo onegaz Sorbona'ko irakasleengan neukan uste on guztia galdu neban...

Baiña nik beti ZERGATIK, ZERGATIK neure buruari itanduten neutsan, eta ez eustan inok be erantzun egokirik emoten.

20 edo 21 urte nituala ikasle lagun gazte bat ezagutu neban. Mutil jatorra zan. Jacques Maritain eban izen-abizena. Arek be, nik legez, ZERGATIK ori buruan sartuta eukan. Biok Egiaren billa genbilzan. Zergatik eta zertara-

ko bizi gara? Ona naiz gaiztoa izatea bardin da? Non dago Egia?

Bein nik Jacques'eri esan neutsan: "Egia non dagoan eta mundu onetan zertarako gagozan ezin jakin ba'dogu, obe da gure burua iltea, eta akabo... Ni betiko illunpe onetan ezin naz bizi".

Egi-billa onetan nenbillela Leon Bloy jakintsuaren liburu bat irakurri neban. Liburu aretan onelako zerbait esaten eban: "Egia jakiteagatik bizitza emongo neuke. Justizia maite dot. Jainko Jaungoikoaren billa nabil".

Jacques'ek eta biok eskutitz bat egin geuntsan, guk be problema bardiña geunkela, adieraziz... Arek bereala erantzun euskun: "Gazte maiteok, ni zarra naz, baiña zuek ezagutzea gure neuke. Goibel-triste dagoenari poza emotea da nire atseginek andiena. Zatoze nigana".

.V *

Joan giñan, bada, Leon ikustera. Oso pozik artu ginduzan bere etxean. Oso txiro bizi zan, baiña edozeiñeri laguntza emoteko beti prest.

Gu ez giñala kristiñauak, esan... eta gero galdera au egin geuntsan: "Munduko aberastasunak itzi, eta ain pobre-txiro bizitzeko indarra, nondik ateraten dozu? Eta on egiten dozunean, nok emoten dautsu biotzeko poz on?... Gu ez gara pozik bizi!

Leon'ek patxadaz eta nasai-nasai erantzun euskun: "Jaungoikoak, fedeak. Ori da nire indarra.

Leon Bloy guretzat igarle-profeta bat izan zan. Jaungoikoak guri bialdutako argi barri bat...

Andik urte betera bateoa artu genduan Paris'eko eleiza txiki batean. Leon izan zan gure aitabitxi... Sekulan ez dot alako pozik neure bizitza guztian nabaitu. Eta poz onek neure bizitza guztian lagundu daust.

GOIKOETXEA' TAR IÑAKI

MARTIN ETXEBERRIA'K DINONARI

H.A.B.E.'ko zuzendariaren itzak siñisten badoguz bi-iru urtetan ikasi daiteke euskera. Bai, egiaz, oker ez dabil, euskera apur bat ikasi daiteke baña ez euskerea. Euskerea eta batez be euskera bizia ikasteko amaierarik ez dago baña Martin Etxeberriak "bi-iru urteren bueltan azken emaitzara eldu daitekela" diño. Ikasle geienak tituloak lortzeko kezkatzen dirala be badiño eta egia da.

Zoritxarrez, benetako euskerea, erriko euskerea ikasi eta ezagutzeko zaletasun askorik ez dago, gero ta titulo geiago eskuratu gura dabe ikasleok. Baña on zergaitik? Edozein Erri-erakundetako lanposturen bat lortzeko edo gai izateko, euskera-arloan gero ta urrats geiagotara eldu, puntu geiago lortzen dalako. Euskerea here zelako egoeratan aurkitzen dan, iñori ez deutso buruko miñik emoten.

Bere buruz ikasten dauanari, eta, batez be, batuaz ez ba'da, ez jako aukerarik emoten, jakiteak neurtzeko Euskaltzaindiak edo H.A.B.E.'k antolatutako azterketak ezagutzen ez ba'dozuz edo euren ikas -gaietan sartu nai ez ba'dozu, zure jakiteak, naiz eta lanposturako onuragarriak izan. euren gogoetatik kanpo itziten zaitue.

Orregaitik doa erriko euskera here desagertzera. Bakoitzak here aulkia tinkatu gura dau eta on da gazteei irakasten dabilzena. Ori dala-ta, gazte askoren elburua geure izkuntza berreskuratzea baño, ikastearen ordaña diruz biur-tuta artzea da.

Zorionez salbuespenik ba-dago. Batzuk, arbasoen izkuntza biztu eta aberastu gura dabelako edo oso polita eta maitezatzen dabelako ikasten dabe eta oneek, laguntza gitxi aurkitzen dabe edo laguntzarik ez.

H.A.B.E.'ko eruedetan, erriko euskerarenganako maitasuna ez da sartuten, tituloak lortzea baño.

LORTU GURA DABENA

Enkarterriko erri batean Eleiz-barrutiko ikastetxe batera doazan umetxoen amatxoei euskera irakastearen arazoan nago. Euren semeak euskeraz ikasten asi ziranean, batzuk, etxean eta kalean euskal-girorik ez egoalaa kontura eta asmo orregaz eurek ikasten asi ziran.

Etxeko zeregiñen eta ama izatearen ardurapean, azti gitxi lortzen da; seme-alabaren baten gaixotasuna, etxeko gallur-raren kaltea, senide-ordu-txarrekoen ikustaldia e.a.

Ostopo guzti onetaz, ikastorduk urritzen doaz eta aalegingu arren. amatxoen emaitzak urri izaten dira.

Euskalduntzeko urteak igaro bear dira eta neuk neuretara ezagutzen dot ori, eurak Iez, etxeko andrea, iru seme -alaben ama eta etxeko zeregiñetan laguntzarik eza aurkitzen nazalako.

Alan eta guztiz here. orrelan asi nintzan ikasten eta egia esaten, urte asko igaro dira baña nire aalegiñaz emaitzak lortu nebazan: I.E.O.eko azterketak neure buruz gauditua eta

euskera erabiltzen jarraitzeko eta besteei adore emoteko, Bizkaiko euskerea irakasten aaleginduten naz, naiz eta laguntzarik ez aurkitu. Zer eskeindu leikioe kasu onetan aurkitzen diranei?

GAUZA GARRANTZITSUAK

Gure euskera gaur egun aurkitzen dan egoera larria ikusita, umeei gero ta euskera egokiagoa eta zuzenagoa irakatsi bear jake eta on lortzeko iru arazo kontutan artu bear dira:

Lenengo irakaskuntza, naiz eta euren lenengo euskera izan, bakoitzaren errikoa izan bear da; Bizkaian Bizkaieraz, Gipuzkoan Gipuzkoeraz, e.a. Bakoitzaren erriko euskerea erreztasunez erabilli eta gero, gertu dago gaztetxoa edozein euskera ikasi, ulertu, idatzi eta irakurtzeko. Orretaz neu naz lekuko.

Gaztetxoaren sendia erdelduna ba'da, here aita-amari eskeintzak eta erreztasunak emon bear jakez euskerea ikasteko, umeak, txikitatik euskal -girorik ez aurkitzean, lotzati eta barragarri sentitzen dira-ta.

Azkenez, gaztetxoei eskeintzen deusien udako euskal-egonaldiak "getoak" izan bearrean erritarren artean izan bear dira, "kolonietan" edo "kanpamentoetan" egoten diranean asko jolasten dabe baña gitxi ikasi edo bapez.

Egia da, batuaz bakarrik ikasi dabenek, ezin dabela ikasitakoa baserrietan erabilli. alkar ulertzea eziñezkoa da-ta. Zer ikasi dabe ba? Erabiltzeko erririk ez badago gor-mutuentzako izkuntza ete da?

AMATXUEN IKASKUNTZA

Orain arte irakasleei bakarrik emon jakez ikasteko laguntza eta erreztasun guztiak, eurentzat dan-dana dubakoa da. Naiz eta urte pillo bat bear izan, ordaintzen jake eta orrez gañera. euren lanpostua gorderik eta ordainduta dauke.

Edozein amatxuk ostera (neu egon nintzan kasu orretan) bere seme -alabatxoak ikastolara joateaz bakarrik naiko ez data ikusten dauanean eta bera ikasten arduratzean, ez dau bear dauana aurkitzen. Ikastegi guztietako abiada ez da berarentzat egokia.

Leenago aipatu dodazan ostopo eta arazoak, eragozpenak dira antolatutako ikastaroak jarraitzeko.

Amatxuentzat ikastaro bereziak antolatu eta diru-laguntzak emon bear dira.

Umeari, amatxoren ardura eta laguntzak, bera ikasten dagona garrantzi aundikoa dala adierazoten deutso eta bion artean beste ikasgela bat sortzen da. Nik neuk guzti on egiztatu daiket. Noiz eta nortzuk arduratuko dira onetaz? Ni aspalditik egiten nago baña nire lana ondartzateko are-ale bat baño, ez da.

"S.I.D.A.: ZEMAI AUNDI ORI"

ARDUREA

"S.I.D.A.". Orixe da gaur egunean aoz-ao entzuten dogun berbea, eta bildurrez entzun, zeatzago esanda.

Zalantza barik, azken aldiotan gai bat erabilli izan ba'da mezu edo albiste-emoillean artean, orixe izan da, ain zuzen be. Minbiziaren antzera, ez jako konponbide edo txerto miraritsu bat aurkitu gatx orreri orain arte beintzat, eta on dala-ta geroago eta aundiagoa egiten doa jendearen eta jakitunen kezka eta ardurea.

IKAREA

Urte batzuk atzera joanda, iñork ez eukan gaixotasun orren barririk; alan be, bere ondorioak gaurkoak baizen izugarriak izango ziran ziurkiro. Egun batean, baiña, gizon ospetsu batek, Rock Hudson, antzezleri ipar-amerikarrak, gatx orrek jota aurkitzen zala autortu eban eta ortik aurrerantza, gauzak guztiz aldatu ziran.

Bat-batean eta abiada aundiz, mundu onetako bazter guztietara zabaldu zan barn ori eta bildurra eta ikarea nagusitzen asi ziran. Osagilleak, adituak eta ikerlariak, bitartean, euren lanari ekin eutsoen urtenbideren bat billatzearren edo.

"MAGIK"

Eta gatx orreri buruz, eretxi batzuk agertu ziran. Orrein artean zelan drogazaleak eta "homosexual"ak ziran SIDA artzeko albiderik geienak eukezanak. Ortik aurrera orma aundi bat sortu zan jende orrein inguruan.

Olan, orreitariko bat izan ezker, zureak egin dau, eta alderantziz, ez ba' zara ardurarik ez.

Era orretan, bereizkeri itzelak egin eta egiten dira notin edo pertsonen artean. Asmo edo pentsakera orreik ostera, oker egozan, jarraian ikusiko dogun lez.

Egun oneitan, SIDA'gaz zer ikusi osoa daukan albiste bat nagusitu da izparringi, aldizkari eta mezu-bide guztietan: EARVIN "MAGIC" JOHNSON Los Angeles Lakers saski-baloi taldeko jokalaria eta izar aundiak autortu barn dau SIDA'ren gatxa daukala eta ondorenez kirola egiteari itziko dautsala.

EDOZEIN

Barriak, zabaldu orduko, gogor astindu dauz bai Laterri Batuak eta bai gaiñontzeko errialdeak; orretzaz ganera, jendearen pentsakera aldatuazo be bai.

EARVIN JOHNSON berak egizaletasun aundiz esan dauanez: "Guk uste dogu ez jakula geuri iñoz jazoko on, besteai baiño". Orain, ostera, berari eldu jako zoritxar ori. Eta berari lez, edozeñeri jazo leitekio gauza bera.

"MAGIC" JOHNSON'ek, sendotasun eta adore aundiz, jakin izan dau gatx ikaragarri on artu eta aurrera egiten, bildurta barik eta garrantzi asko kenduaz. Adituen ustez, jokabide orrek indar aundia emon leio jendeari, au, arazoaren aurrean jarri daiten.

SIDA or dogu, gure aldiko arazo larri ta aundia. Earvin Johnson'en jazoerak balio begigu zemai ori kontutan artuta, geure egoereagaz konturatu eta zentzutasunez jokatzeko mailla guztietan.

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"

EUSKERAZAINTZA'tik:

EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA'k ZER Aldizkariaren irakurle guztiai eta euskaldun guztiai oar an egiten dautse: Erakunde onen lenengo Lendakaria izan zan Akesolo ta Olibares'tar Lino joan jakunetik, lendakari barik izan dala, lendakari ordeak bere lekua beteten ebal, eta joan dan azillaren 30'e an egindako batzarrean egin zala auteskundera utsune ori beteteko. Olazar eta Uribe'tar Martin izan zan lendakaritzarako aukeratua eta Lendakari-orde Zubikarai eta Bediaunaeta'tar Augustin.

Urtearen asieran gagozen ezker, irakurleai oarra: Arpidetzaren ordaina diran 1.200 pezeta bialdu dagiezela arren. Oar au batez be Bilbao'tik kanpoan bizi diranentzat da. Bialtzeko erarik onena txeke bat bialtzea da. Ipiñi txekean EUSKERAZALEAK izena eta bialdu zuzenbide onetara: EUSKERAZALEAK: Colon de Larreategui 14, 2.ª - 48001 - Bilbao.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k eta ZER aldizkariak Gabon Zoriontsuak eta Urte Barri gozoa opa dautsez bazkide ta irakurle guztiai.

Z U ZENDARITZA - BATZORDEAK

LARRA'N OLERTI EGUNEZ

LARRA'RA

Larra'ra urterik urte beti biotz beroz joan oi gara. Bera dogu gure biltoki anaikorra.

Aurten. bertara joaten asi giñanetik 1960'garrenean asierea emon geuntzanez, 32'garren urtea betetu dogu, ta azken urteotan Kristo Erregeren egunez ospatua izan jazoerea. Beti alaikorra benetan. Egun ozkirria egin euskun, baiña zerua, eguratza, gero ta argiagoa ta urdiñagoa egoan.

Asi ziran urtero lez kanpotarrak elduten Gipuzkoatik eta Ajangiz-Gernika inguruetatik batik bat.

Bilbao'tik bertaratzeko Egileor'tar Jon'en berebillan guztiz lau lagun kokatu giñan, Euskerazaleko idazle-irakasle garan batzuk eta Castellanos-Mintegia'tar Jon Jauna Euzkadi'n guda ondorengo eztabaidetan gudari zaurituen eskubideen eusle, aolkari ta aldezele zuzen eta zintzoa izanikoa bera.

Alkar agurtu ondoren guztiok alaitasun osoz Olerti Egunari indar eta poztasuna emoteko asmo biziz bateratu giñan. Laster baiña Bilbao'tik etorritako bik, Gernika'tik zear Mundaka'rako bidea artu eben. Antxe eukiten dabe euren urteroko bazkari jaukala, Castellanos'ek deituta bere erri kutunan bizpairu lagunei eskeiñita. Ori Sukarrieta'n geldiuinetxo bat egin da gero, Arana ta Goiri'tar Sabin'en il-obian otoi labur bat egin ondoren.

Bazkal ostean eta onek emoten dauan poztasunaz, arratsaldeko bostak eta erdietarako Larra'ra barrero gugana, egun zoragarriaren azken orduak danokaz batera gabeko 8'rak arte "Auzokoa" jatetxean emoteko. Amaiera bardingabea izan genduan.

Egun eder orretan izan genduzan zertzeladak, astirotxo orain aztertuko doguz.

MEZEA

Amaika t'erdietan, errikoekaz batera, mezatara joan giñan. Gendetza ugari beti bezela. Bertan Onaindia'tar Santi Aitak betiko erretasun eta argitasunaz bizkaiera ederrenean itzaldi bikain borobil bat egin euskun Jaungoikoarendik izadiak arturiko edertasunatzaz, Olerti egunari buruz eta Kristo'ren Erregetza, gaiak zirala.

Izadi osoa Jaungoikoa'gandik arturiko edertasunaz blai blai gainezka aurkitu oi da. Olan lats eta errekatxoak ederrak dira, mendiko edurrak eta iturritxoak ere bai, ederre ibaiak, itxasoak, mendi ta mendi-kateak, aitz tontorrrak eta amiltegi sakonak ere bai. Ekaitz-osteko ortzeadarra. zeru gardenak, eguzkia, illargia ta eguratzan, or-

tzean zear gelditzeke ibilli dabiltzan milloika izarrak be bardin. Danak Jaungoikoa'rengandik arturiko edertasunaren aztarnak, zantzu apal-apalak dira.

Gizadia be ederra da, larrosa margozko umetxoak ederrak dira, neskatil-mutikotxoak, neska liraiñak, mutil lerdanak ederrak, gizon-emakume elduak dan danak ederrak dira Jaunak emoniko edertasunagaz. Gaurko egun ederrean be joranez aurtengo Olerti-Eguna Larra'n ospatu oi dogu ta guztion gain kopuru ta gaillur bereziena lez Kristo'ren Erregetza edertasun paregabeaz dagerkigu.

Meza-asieran eta amaieran Zornotza'ko bertsolari ospetsua dan Irazabal'dar Paulo Jaunak abesti eder bioz-korrekaz alaitu ginduzan abertzaletasunezko eresi ta doñuetan aapaldi batzuk abots ozenez eskeiñiaz bat, eurentan Ama Lur eta Arana'tar Sabin ere aipatuz.

BATZARRA

Ondoren Lekaidetxeko areto epeltxo baten izan genduan Olerti Egunari egokion batzar berezia. Atzo-miñez gogoratu genduzan len gugaz eta orain bizitz obe batera joan jakuzanak. Ots, Zaitegi'tar Jokin, Etxaniz'tar Nemesio, Bordari, Peña'tar Xabier, Altuna'tar Josu... ta oraintsuago Muniategi'tar Sabin, Txanton Goiria. Akesolo'tar Lino Aita Karmeldarra...

Lirika saillan saritua izan zan lana "Osintxo" ezizenaz etorren eta ez genduan jakin egillearen izena. Bergara ingurutik bialdua izan zala deritxogu. Egoki egokiro irakurri euskun Bidaguren'tar Angel Jaunak.

Ugarte'tar Martin Jaunak Poema saillaren irabazleak here poemaren zati batzuk irakurri euskuzan eta, amaibidez Beloki'tar Agustin Jaunak here bertsoen txorta batzuk here betiko abots zoli-ozenaz. Azken bi onek sarituak izan ziran.

Guenez mai gañeko idaztiak besteetan bezala gure aukeran eta duan artzeko Aita Santik opatu euskuzan. An oraitsuko Teresatxo Deunaren bizitza, Donibane Gurutzekoarena eta abar.

Oneik, beste batzuen artean, Aita Santi'k igorri dauz Durango'ko Liburu ta diskoen Azokara. Euskerazaleak be geure Stand berezia bertan izango dogu. Aurten Napartarrak be eukiko dabe euren Stand beren-beregia Lendakari barriak euskereari buruz Sozialistak baiño obeto jokatzin daualako.

Aita Onaindiak Teresatxo Deunaren bizitz-idaztia norbere-idazkiz (autografoz) eta biotzez eskeiñi euskun eskatu geuntsonai. Onela ordu bi t'erdia eldu eta bazkaltzen joateko gerturik gengoan.

BAZKARIA

Aurten Zornotza'n bertan izan genduan bazkaria "Auzokoa" jatetxean. Zokotxo baten egoan geuretzat atonduriko mai apaindua. Janak bedeinkatu ta asi giñan agin zorotzakaz mauka ta mauka agirikoak jaten. Bakotxak bere erratillo luzengan asiera emoteko zizkamizkak: alboan ardao gorria eta baltza ta bonbildun ura.

Mai-bitarteko oneik maxkurikoaz, otarraintxokaz (langostinoak) eta Naparra'ko errazuriz edo esparragoz orniturik egozala. Gero zukua ugari bai berakatz zukua baita ere arrainduna. Danok, zein baño zein obeak egozanez, bietarikoak txastatu genduzan, benetan ao-gozagarriak ziran-eta. Ondoren lebatza bere saltsa egokienean, maon-salda ta, bukatzeko, azpizun edo solomu borobilla piper gorriakaz eta patata edo lursagar prijiduakaz.

Azkenekoa edo postre bezala, etxekoa, lau tontortxuz egokitua, ots, izozkiz, esne-opillez (flanez) eta almibarezko edo zirota-zko mertxikaz gitxienez.

Gero, beti lez, akeita, kafesnea, kamonilla, txola ta txokorra bakoitzaren aukeran.

BERTSOGINTZA

Bazkaria amaitu ondoren abestuten eta bertso-gintzan murgiltzen gara. Astiro-astiro bazkaria ordainduta gero, beste maietako jendea aretorik urten ala, berotu oi gara. Berotu ta sutu aberriko abesti samurrak bide dirala. Aurten parte atrtu ebenak Beloki'tar Agustin, Aurre-
Apraiz eta Irazabal'dar Paulo jaunak izan ziran. Augustin eta Paulo olerti eta bertso-gintzari buruz luze bai luze mintzatu ziran eta noizean bein Irazabal'dar Paulo'k bertso saillak buruz bota oi ebazan guztion poztasunez.

Paulo'k bere kabuzko bertsoak ere parrastadaka eskeiñi eskuzan abotz paregabekoaz abestuz. An urteten jakozan Sabiñ'en abesti aberkoiak. Amuriza'nak eta berak an bertan sarturikoak. Dan dana unki-garri benetan. Azkenez Egileor jaunak bere "magnetofoi-an" bertso-abesti batzuk irarri zituan.

Gabeko zortzirak ziran kaleratu giñanean eta lekorean, jatetxetik at dana jendez eta berebillez betetuta egoan. Ia ezin zeintekean oinkadarik, pausorik be egin. Gaztediaren orduak ziran, gabe epeltxo-a eta neska-mutillak iñurriak bezala urduri. batetik bestera ebiltzan lagun-en billa gel-ditzeke. Klean poza be igarten zan, ba Atletik taldeak Zaragoza'koari gain egin eta aurtengo bere lenengoko garaipena lortu eban San Mames'en.

Olan Bilbao'ratu giñan, biotz-pozez ta Jainkoa lagun datorren urtean barriro be Larra'n danok alkartzeko asmoz. Guztion eritxiz Aita Onaindia iru-lau bat urte gaztetu zan. A zan bere arpegiaren irribarrea!

Gabon zionsuak eta urte-barri on bat opa dautzuet dan-danoi.

Bilbao'n, 1991'gko. Azillaren 29'an.

ARREGI'TAR JOSU'K

IRAZABAL eta AURRE-APRAIZ'ek abestutako bertso batzuk

Ontzako Larra'ko eleizan
pozik otoi kantuan,
Karmel' go Ama zabaldu-
rik maitasunaren mantuan.
Aita Santi Jai-egile
ez da betiko kontuan,
Danok batera ospatu daigun
anaikor Meza Santua.

Gaurko batzarra esaten noa
dala batzar berezia,
Geure artean olerkari
Ospetsuen gu bizia.
Urteroko jaia egiteko
lelengo entzun mezia,
Urte askotan ospatutzeko
Jaunari eskatuz grazia.

Gure negarra ez entzuteko
Nun zagoz Aita Sabino,
Zuri negarrez urtuten nago
aide ziñuz ezketiño.
Etsaiakaitik zeu il ba'ziñan
zure biotzak zer diño,
Zu ilda bere etsai gogorra
bizi dirala oindiño.

Etsai gogorrez inguratuta
Zu ziñan ludi onetan,
Etsaiakaitik zerbitzalako
gudaldi gogorrenetan.
Genre Aberri maite-maitea
maite zendula benetan,
Zintzo bai zintzo jarraitu zendun
bere Legia gordetan.

Zu izan ziñan, Sabin maitia,
zu izan seme azkarra,
Zu izan ziñan abertzale on
maixu jakintsu bakarra.
Orain Sabin zu pozez beteta
zeruetako batzarran,
Maiteko dozu Jaungoiko ona
eta gure Lagi Zarra.

IZEN ONA

Oarra: Gotzon Garate adiskideak Deia Egunkarian idaz-1an eder bat argitaratu dau, (91-11-25'ean) euskereari buruz. Bizkaieratuta argitaratzen dogu emen, irakurgarria data uste dogulako.

LENAGO LOTSATU

Aldi baten euskeraz berba egiten lotsatu egiten ziran asko. Euskerea arloteen, arto-jaleen eta ezjakiñen izkuntza ei zan.

Bilbo'ko españatarrak barre egiten eutsen erritxuetatik etozen baserritarrai, españeraz ondo berba egiten ez ebelako.

Franco'ren aldietan Euskalerriko agintedun, irakasle eta kanpotarrak, euskerea galerazo eta euskeraz berba egiten ebenak astotzat madarikatzen alegindu ziran. Eta lortu be asko lortu eben.

GEROAGO

Geroago gauzak naikoa aldatu dira. Onerako aldatu be. Euskerearen izen ona geroago ta gorago ikusten da.

Aldaketa ori Ikastetxe Nagusian berban be agiri da.

Orain ogei ta bost urte, Deustu'n, esaterako, giroa ez zan gaurkoa lakoa.

Orduan komunistak indarrean egozan eta batzarrak (asanbladak) sarritan egiten ziran. Ni ia guztietara joaten nintzan.

Ba-ziran orduan be ikasleen artean euskaldun jator eta ausartak. Oneik euskeraz berba egiten asten ziranean, jentek txistuka artzen ebazan eta españeraz berba egiteko eskatzen eben.

Baiña gaur ez da olakorik jazoten. Batzarretan iñoz euskeraz berba egiten ba'da, guztiak entzuten dabe arretaz. Urrengoak españeraz berba egiten ba'dau, ia beti asikeran parkamena eskatzen dau: "Parkatu, baiña gazteleraz egin bear dot, nik euskerarik ez dakit-eta".

GAUR

Euskerearen izen onaren neur-gaillua gora doala ikusteko ezaugarririk onena auxe da: Ikastetxe Nagusian euskeraz dakien neskak be euskeraz berba egiten dabela. Lenago neskak ziran euskeraz egiteko geien lotsatzen ziranak.

Beste aide batetik be eldu jako izen ona euskereari.

Gaur-egun geroago ta jente geiago joaten da atzerrira eta an españeraz egitea ez da aintzagarria. Españatarrak txiro ta ezjakin lez artzen dabez.

Bretaiña Aundian itaunketa bat egin dabe eta Europa'ko Azoka-barruan dagozen laterrien artean espa-

ñatarrak ei dira alperrenak eta loienak. España'ko irratiak eurak be zabaldu dabe barri ori, baiña asarre agertzen dira eta egia ez dala diño, portugaldarrak diralako españatarrak baiño askoz alperragoak eta loiagoak.

ATZERRIAN IBILTARI

Gaztetatik asko ibilli bear izan dogunok ondo dakigu zelako alboratzeak jasan bear izan doguzan munduaren egaletan, españatarrak garala uste izan dabenean. USA'n bertan be españeraz berba egiten dabena baltzak baiño be gitxiagotzat artuak izaten dira.

Kanpora urtetan diran euskaldunak konturatzen dira zelako izen txarra dauken españatarrak eta alegiñak egiten dabez euren buruak españatar lez ez agertzen. Eta orretarako onena, euskeraz berba egitea izaten da.

NORK EUSKERAZ?

Bilbo'n euskeraz nok egiten dauan aztertzen asi ezkerro, auxe ikusten dogu: Ikasleen, irakasleen eta gizarteko erdi-maillako jentearen artean Naparroa'ko izkuntza, "lingua navarrorun" entzuten da.

Ori pozgarria da aide batetik, euskerea ez da ezelan be arloteen eta asto kirtenen izkuntza, jente ikasiarena baiño.

Beste aide batetik, ostera, kezkarria da. Euskalerriko jente txiroa, España-aldeetik etorri eta Santurtzi'n edo Barakaldo'n bizi dan jente ez-jakiñak ez daki euskeraz. Euren umeak ikastolara bialtzeko dirurik be ez dauke.

"Cortes"eko emagalduek. Txurdinaga'ko gitanu droga-saltzailleak, igandeetan Bilbo'ra, ondakintegira (rastrora) tresneria saltzera agertzen diran orreik, españeraz baiño ez dakie.

EGOERA LATZA

Kontu latza, benetan. Euskereagaz ez ete da jazoko latiñagaz gertatu zana: Lau jakintsuk, host zaldunek, zazpi aberatsek eta iru jakinzale burargik ekiten eben latiñez, jentea zeiak ez. Eta latiña antzarrak perratzeko joan zan.

GOTZON GARATE'K DEIA'N
(BIZKAIERAZ M.O.'EK)

AGUSTIN APAOLAZAREN LIBURUAK

Oraintsu arte, gure euskal literaturarik geienak eliz usaina ekarren, erabilitako gaia bera erlejinozkoa zalako, edo-ta egileak, geien baten, elizgizonak ziralako...

Azken urteotan, ostera, usain on asko galdu da, euskal letren arpegia zearo aldatuta agertzen jaku, gure gizartearena lez.

Juan Mari Torrealdaik urtero emoten deuskuzan liburu barrien zerrendak ikustea da naikoa au olan dala jakiteko.

Bahia, gaur euskerazko eliz liburu barriak gitxi izan arren, eurotariko batzuk, beintzat, gorengo mailakoak doguz, euskal kulturearen lorarik ederenetarikoak.

Olakoxeak dira, nire ustez, Aita Agustin APAOLAZA arduratsu egin eta txukun argitaratzen deuskuzan bibli liburuak.

SALMOEKIN OTOITZEAN (198?) izan zan here leenengo liburua. Ez da, gero, salmoen itzulpen uts eta barri bat.

Egia esan, gaur Egoaldeko euskal Eleizeak bere otoitz ofizialerako darabilen salmoen itzulpenak asko be asko zor deutso Apaolazari.

Liturgia barrirako zein salmo-itzulpen artuko zan erabagi ebanean, eliz-barruti arteko batzordeak ORIXE andiarena aukeratu eban oinarrikotzat.

Baziran beste itzulpen barriago batzuk be gure artean, danak egokiak eta txalogarriak: Duvoisinek eta Olabidek euren Biblietan egindakoak, aide batetik, eta bestetik Galdosena, Iratzeder-Lertxundirena (gipuzkerara Baztarrikak eta bizkaierara L. Akesolok egokituak), Jaime Kerexetarena, Zugastirena.

ORIXEren salmudia aztertu ta egokitzeko (bai itzulpenaren zintotasunari, bai euskerearen erreztasunari dagokienez) batzorde txiki bat eratu zan, eta batzorde orren buru ta lan-egile nausi Agustin Apaolaza izan zan, bibli gaietan gizon oso aitua dalako.

Apaolazak, here **SALMOEKIN OTOITZEAN** liburu orretan batzorde orrek onartutako itzulpena

darabil (orixe dozu **ORDUEN LITURGIA** eta **IRAKURGAIK** liturgi liburu ofizialak eskeintzen deuskuen itzulpena); baiña, egia esan, bein baiño geiagotan bere aldaketa txikiren batzuk sartzen ditu, eskubide osoaz.

Ez da orretan amaitzen Agustinen lana. Liburu oni berarizko berezitasuna emoten deutsoen gaurzarik beinenak oneixek dira: liburuak daroan Sarrera nausia, salmoak zer eta zertarako, zelan erabili bear diran erakusteko (nekez aurkitu ziñei euskeraz orren antzeko sarrera sakonago ta jakitunagorik); salmo bakotxari egindako sarreratxu laburra, salmoaren barruko zatiketea zein eta zelakoa dan azaltzeko; salmo orren gai nagusiak; liturgiak eta eliz gurasoak zelan erabili daben; eta salmo-otoitza, otoitzaldi guztiaren laburpen lez.

Dirudienez, liburu au polito zabaldu da Euskalerrian, bigarrenez argitaratu bear izan da-ta.

BIBLIAREKIN OTOITZEAN. Salmoeekin egindakoa, Biblia osoagaz egin gura dau Apaolazak, antzerako bidetik: Biblia, Jaungoikoaren Berbea, gure otoitz-gairik eta otoitz-biderik zuzenena, egokiena, aberatsena egin nau dau, orretan antxinako Eleizearen bidea barriro aurkituz.

Ekin eta ekin, ia urte birik bein here lan isil etenbakoaren beste iru frutu eder plazaratu deuskuz Apaolazak: **ASIERA** (Genesis, 1985), **IRTEERA** (Exodo, 1987) eta **SAN MARKOSEN EBANJELIOA** (1990).

Irurok "Bibliarekin otoitzean" sailean argitaratu ditu. Asmo, elburu ta barruko egitura bardina dauke liburu guztiok: leenengo ta bein, sarrera luze samarra, liburu bakotxaren zertzeladarik beinenak eskeintzen deuskuzala, gaurko bibli jakitunen eretxiak kontutan izanik; urrengo, testua bera, euskerara itzulia, eta gai nagusitan banandua, sarreratxu labur eta guzti; gero, zati orretako mamina zein eta zelakoa dan (bear bada, auxe da liburuon alderdirik mesedegarriena); eliz gurasoak eta liturgiak gai bakotxa zelan erabili daben esaten jaku

BIBLIA

gero; eta azkenean, letra anditan, otoitz labur bat, irakurri ta ausnartu dana eskari sutsu biurtzeko oso egokia.

Ain zuzen be, otoitz-liburu egiten ez badogu, Biblia jakintza legorraren sareetan itoteko liburu biurtuko jaku.

Eraskinean, beste gauza jakingarri bat be eskeintzen deusku gure Estibalitzeko fraideak: liburuon zati bakotxa dometa ta jaiegunetako irakurgai lez noiz erabilten dan.

Esan daigun Apaolazak bere izakera apalaren usain gozoa emoten deusela bere liburuai: ain argi, errez ta lau egiten jakuzalako, badirudi liburuok ez daukeela beste munduko sakontasunik. Baina on azala baino besterik ez da: bizitza guztiko ta ordu askotako ikaste-lan gogorraren umeak dozuz, benetako jakitunaren lan zeatz eta sakonak.

Ikusi, bestelan, azkenean emoten jakuzan "iturri" batzuk. Goi-mailazko jakituriaz eta gaurkotasun andiaz egindako liburuak dira Apaolazarenak, beste edozein izkuntzatarata bape lotsa barik itzultzeko modukoak. Eta on asko dala, erri-euskera jator garbian idatziak, edozeinek errez ulertzeko eta gozatzeko berebizikoak.

Aita Lino AKESOLO jakitunak, JAINKOAREN DEIA aldizkarian ainbat artikulutan erakutsi euskunez, euskeraz egin diran bibli-itzulpenak ez dira orren urri. Baiña, egin ete da sekula santan Apaolazaren antzeko lanik? Ez dot uste.

Bide mesedegarri onetatik asi baino ez da egin gure Agustin. Aurrean egiteko daukan lana ez da txantxetakoa.

Baiña Estibalitzeko bakardadean, osasunak laguntzen badeutso, asti bitarte guztiak emongo deutsoz Apaolazak esku artean dakarren ekintza eder oni. Orretan ziur gagoz.

Artu beiz gure eskerronik eta zorionik beroenak. Urrengoa noiz plazaratuko zain gaukazuz, Agustin.

KARMELO ETXENAGUSIA

EUSKERAZALEAK

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 1992 ko urtarrillaren 30'ean (egunean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz:

- 1.- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespina.
- 2.- Diru-egoeraren azalpena.
- 3.- Urteko ekintzen azalpena.
- 4.- Eskaera ta itaunak.

LENDAKARIAK

EUSKERAZALEAK

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la proxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrará el 30 de enero de 1992 (jueves) en los locales de nuestra Asociación y con el siguiente orden del día:

- 1.- Lectura y aprobaciOn en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 2.- Estado de cuentas.
- 3.- Memorias de actividades.
- 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

AUGUSTIN ZUBIKARAI

IDAZTEA

Izkuntza guztietan, idazleak garrantzi aundia izan dabe, eta dabe, berbeta orrean garapenerako. Zenbat eta geiago euki, aberatsagoak izango dira.

Geure euzkera maitean, oso berandu arte etzan iñor idazten asi eta orrek atzerapen aundia ekarri dautso. Dana dala, Bernart Etxepare'ren alditik orain arte gauzak asko aldatu dira eta gaur egunean idazle bikain batzuk ba-doguzala esan lei. Batzuk aitatzekotan oneixek gendukez: Aita Santi Onaindia, Jaime Kerexeta, Eusebio Erkiaga, Bernardo Atxaga eta Augustin Zubikarai, besteak beste. Danak ezagunak.

OMENALDI TXIKI BAT

Bahia, euren artetik bat goraiatu nai neuke beren-beregi: AUGUSTIN ZUBIKARAI.

Ondarruko idazle au oso sartuta dogu euskal gogo-lantze edo jakintzan, batez be euzkereari dagokionean. Oso ezagunak doguz bere lanak eta ekintzak eta berezitasun bat: here euzkerearenganako maitasuna eta etengabeko alegiña.

Nik, idaz-lantxo onegaz, omenaldi txiki bat eskeiñi gura neuskio. Mailla apalean, bai, baiña nere eskerrona eta txalo beroa sartuta.

ZERGAITIK

Alde batetik berak euzkereari eskeintzen dautsan biar zintzoagaitik eta bestetik, genre alea maitatu eta aldeztuten irakatsi daustalako. Bere euzkera ulerterreza, txukuna baizen ederra.

Augustinek, ia, ia, here bizitza osoa eskiñi dau euzkerearen mesedean eta bizkaieraren aide, batez be; bera aberastuz eta indartuz, obetu eta zabaldu nairik. Bai idazle lez, bai EUZKERAZAINTZAKO

kide lez eta bai izparkari lez ("EGUNA", DEIAKO idaz-lanak, BIZKAIA-IRRATIAN, eta abar, eta abar).

SARIAK

Eta ondo egiña dagoanak here saria daukan lez, gure Augustinek be sari eta aipamen asko jaso dauz here bizitzan zear. Orra batzuk: "Toribio Alzaga" Saria antzerti saillan, "Gipuzkoa" antzerki Saria, "Txomin Agin-e" Saria elebarrikoan, besteak beste. Baita olerkari izan be. Ez da gauza makala.

Ikusten dogunez, arlo danak ikutu dauz eta orrek erakusten dau here maitasuna eta goi-mailla, nai ta berak merezi dauan ospea edo ezagutza ez artu (bizkaieraz idazten daualako izan ete leike?)

LANAK

Edozetara be, or doguz here lan-pare bakoak eta emoitzak, orain biar ta beti balio dabenak.

Bestaldetik, euzkerearen batasunaren gaia dogu. Batasun ori, bearbada, bearrezkoa izan lei, baiña gure elearenganako maitasunez egiña eta euskal sena galdu barik egin beariko litzakela pentsaten dot. Orretarako, jakiña, euskaldun jakintsu ta jatorrak bear dira. Eta arlo onetan, nor egokiago Augustin Zubikarai bail-1o?

Bene-benetan, Euzkereak ba-dauka zer eskertu Augustin'eri eta euskeldunok zer esanik ez. Bera gure berbetearen aldazle ta euskarririk sendoentariako bat dalako. Jarraitu begi aurrera euzkera ta gure jakintzaren onerako eta eldu bekioz geure eskertza ta omenaldi biozkorra.

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"

DONOSTI'KO GOTZAIAREN AZKEN "PASTORALA" DALA-TA

Oiturik gagoz-ta ez gara bat be arritu. Setien'dar Joseba Mirena Donosti'ko Gotzai Jaunak zerbait esaten daun bakoitzean, zaunkaka yartzen yakoz Españi'ko zakur guztiak. Eta bada dirudianez Españi'n zakurrik aski.

Ori ikustean, neri, Kixote Mantxatarraren berba jatort gogora: "Zaunka ~~da~~ ^ggite Santxo ? Aurrera goaztelaren adi-garri !"

Argi eta garbi gaitzesten dau Donosti'ko Gotzaiak terrorismoa, indarkeria: Indarkeri oro. Indarkeriak danak dira ba gaiztoak: Gure adiskideenak eta gure etsaienak. Danak.

Baiñan Españi'ko zakurrak ez dira pozik gelditu. Asarretu dira. Españi'koak eta baita emen Euzkadi'koak ere.

Zakur oientzat etsaien indarkeria gaiztoa ei da beti. Ona berriz adiskideena; edo beintzat, ez ain gaiztoa.

Baiñan, lapurreta, besteren gauzei su ematea, albisteak ateratzearren baituak oiñazetan ipintzea, gaiztakeri aundiak dira beti. Ta zer esanik ez gizakume bat iltzea, nork bere burua babesteko bear-bearrezkoa danean izan ezik.

Indarkeriak, terrorismoak, ez dauala beñere gizartea elburu on batera eroaten, diño Donosti'ko Gotzai Jaunak. Ori, egia da. Egi aundia. Baiñan, noizbait elbururik onenera eroango ba'leu ere, bardin izango litzake gaiztoa. Terrorismoa, indarkeria, berez eta beti da gaiztoa-ta.

Egi aundiak esan dauz Setien'dar Joseba Mirena Gotzaiak. Eta esan be, dotore esan dauz guztiak.

Alare, beti bezala, aurka irten yakoz Lateraldeko alderdi politiko danak. Izugarritzko gorrotoz, batzuk, gure Pesoetarrak adibidez, eta, zer esanik ez, Madrid'ko ABC eskubitar aski ertzakoi edo estremista.

Marrulari oiek danek ordea, garrantzi aundiko gauzatox bat aztu dabe: Setien ez dala politika-gizona; soilki Gotzaia dala, eta gotzai bat ez daitekeala politikalariek itzegiten daben bezala mintzatu. Politikalariek, borrokalariek dira. Gotzaia, alderantziz. pake-gizona da, guztien Aita.

Politikalarientzat, bere alderdikoak ez diran guztiak, etsaiak dira. Gotzai batek ordea, zuriak izan naiz baltzak izan, seme-alabak dauz bere elizbarrutiko gizakume guztiak. Orregaitik, aita batek bere umeei bezala itzegiten dautse guztiei: onei eta gaiztoei. Oso gaiztoak izango dira agian auetako batzuk. Baiñan alatagutziz, semeak.

Ebangelioak aurkezten dauskun seme galdu aren aitak bezala, here seme galduen salbamena gura dau Gotzaiak; ez, seme aien ondamena.

Bere artaldearen artzaia da Gotzaia. Eta zuk, irakurle, ondo ezagunak dozuz, Ebangelioko Artzai Onaren sentimenak.

Ba, Artzai On ura bezala, ibilli da oraingo ontan Donosti'ko Gotzaia.

"Pastoral" itzak, Elizaren izketan, "anima-zaintza" esan nai dau. Eskutitz pastoral edo "anima-zaintzako" bat ez da oar bat bezalakoa.

Oar bat, une bateko arazo bat zuzentzeko ematen dan gauza da. Eta orrelako oarrak, eman dauz Donosti'ko Gotzaiak ETA'ren gaiztakeri nardagarriak gaitzesteko.

Anima-zaintzako eskutitz bat ordea, Elizaren dotriña erakutsiz, gaurko, biarko eta betirako idazten dan dokumentua da; ez jokaera bakar bati erantzuna emateko baka-rrik, baizik eta orrelako jokaera guztiak zeruko argiz bein betirako argiturik izteko. Orregaitik ez du gaizkilleen izenik eman bear; bestela gaizkille guztien izenak aitatu bearko leukez ba, eta on eginkizun luzeegitxoa gertatuko litzakio.

Ederto mintzatu da Donosti'ko Gotzai Jauna: sendo, tinko, baiñan gorrotorik gabe.

Politikalarien izketari beti nabari oi yako gorrotoaren doiñu zakarra. Gotzai baten izkerak ez daike orrelako doiñurik ekarri.

Gaur goizean, Abenduak 2, irrati guztiek zabaldu dabenez, espetxean baiturik aurkitzen diran ETA'ren buruzagirik aundienetako bik, ETA gaitzetsita ETA'k darabilkian ilketa-jokuaren aurka berba gogorrek esan omen dabez. ETA'k burua galdu omen dau. Jende-iltzeari agur eginda, iritxi omen da alkarrizketaren bidetik sartzeko garaia. Indarkeriak ez omen dau Euzkadi elburu onera eramango. Indarkeria utzita, politikaren bidez asi bear omen dau ETA'k gaur-gero lanean.

Pentsatu daitekela dirudi, politikalariek guztien orru txoro zikiñek baiño eraginmen aundiagoa izan daula Donosti'ko Gotzai Jaunaren zentzuzko izkera zuzenak!

Zorionak, Gotzai Jauna.

BIZIAJOKOA DA, JOKATUEGIZU

Jokoa ez da errenta, antxiña esan eben Aitorren seme euskaldunak. Aitor gizon argia zan, batez bere zentzunduna. Euskal mendi, arru ta zelaiaak euri ta edurrez busti ta indartu ta eguzkiagaz igurtzirik, edertasunaren senean apainduta geratu ziran. Ta euzko gizonak lurraren sen eder orretatik artzen eben zurtasunaren argia ta zentzunaren indar berezia.

Ori dala-ta, Aitor ta beren erritarrak zuzentza bidean, ondo orniduaq ziran. Egia zan euren bizitz ardatza ta ederra euren atsedena. Era onetan sortu al izan eben erri jator ta zentzun aundikoa. Geroz, egokiera eder orrek, geroago ta obeto, lantzen zituen euzko gizadiaren buru, biotz, egite ta inguru guztiak.

Bizi-giro onen ondoren dator euskaldunaren gizatasuna ta bizitzeari zor izan ta emon bear jakon erantzunaz arduratzea... "Jokoa ez da errenta". Ondasunak galdu -mendian erabiltea ez da bidezkoa, ez da zuzena. Ainbeste milloi lagun, gosez ilten dagozanean, jokoan diruak ondatzea, ez da zilligi. Gizonak ez dauka ondasunak ondatzeko eskubiderik.

Bahia sendia, aurrera aterateko burruka egin bear da mendian, zelaian, itxasoan, ikastetxeetan ta miñetan. Lenengo jokoa mendian daukagu. Gure lurraren gallurrak deika daukaguz, otamendi izena kendu ta aritz-mendi izena artu nairik. Ortarako atxurra ta lana bear dira. Nagikeriari uko eginik, buruz ta besoz jokatu bear da, mendien magalak garbitu eta urratzen. Emen, dago gure mendi ederren jokoa... garbitu, edertu ta euri egokien jatorkezan zugatz landarak jarri, Euzkadiren bizia bizitu ta aupatzeko.

Giza bizitzak eskatzen daben eran, ba-dira beste inguru eder batzuk atxurrez ta aizkoraz edertu bearrekoak. Antxiñatean, gure arbasoak, gogoz jokatu eben mendi bizkar ta zelaia lantzen. Or dago ba, jokoa, biziko ba-gara, lu zeurrak lantzen jokatu bear da. Arnari gozoak, sagar, madari, mertxika, mailluki, gizonaren lan ta lurraren amatasunetik datoz. Lur ta gizonaren arteko lan-jokotik datoz baratzaren arnari edertasunak.

Euriak ala legortea, ala euri ta eguzki arteko lur giro eder bat, zer izango dan aurtengo udabarri ta udan, lugiñak ez daki; on dala-ta, lurra bere langillearen zain, begira dago, eiztaria erbiaren zai baiño zurrago. Landu gabeko lubarriak, arantzaz beteriko sasiak izango ditu bere kateiak lor eta miseriz betiak. Dana dago esaten, dana dago eskatzen... jo atxurraz, mutillak, taloa ta esnea artzeko ta ezitia gozartzeko lurrean.

Gure bizitz ataletan bat zabal zabala da: itxasoa. Gizadiaren onerako sortua dan ezker, gizonen eskuak, or

jokatu bear dabe buru ta biotz, biziaren bear izanei erantzuteko. Ainbeste ur eder, ainbeste arrain bizigarri gure egarri ta goseak asetzeko izakiak dira. Egiz, deika dago giza -barneko eskabidea itxasora begira. Ea gizonak, or dago zuen altxorra, urtegi orren erraiak arrain janariz beterik.

Ea gizonak, iragan itxasoak izontzi aundietan ta zabaldu sareak uretara. Semeak eta erria hegira dagoz itxasotik datorren arrain barriari. Biziak eskatzen dau, jokatu egin bear dala itxazaldi ederretan, eguzkia, zabal -zabal, dagonetan ta itxasaldi ez ain ederretan, euria danean. Nundik nora ete dabail arrain bandea...! Arrantz-aroa, berez, gogorra da, baiña biziak diño, jokatu egiok itxasoari bere pasadea...

Alan esan bear ta, lur onetan sortu ta zabaldu zan euzkotarra. Erri onek oinpean daukaz ondasun arrigarriak euzkotarren bizirako; lurraren sorreran ondasun abia errai barrenean geratu zan, ixilik eta indartsu. Gizon jakituria ta langille errimeak jokatu bear dabe lur barruko arri burniei euren bizi gatza ateraten. Gogoa, ernai, dago, eskuak aske ta erriaren bizi egarriak, aurrera, diño burdiñaren billa -bidetik.

Lurraren ondasun orrek menderatu egin bear dira euskotarren aurrerapiderako. Jokatu egizu, gizona, dirausku biziak. nire erraietan dagon guztia zuentzat da. Billatu egizue, ez zaitezte ikaratu, ez atzeratu, koldarrentzat ez dago ezer.

Lan-arlo guztiak aundi ta eder dira, baiña euren artean bat bearrezkoena... argitutea. Burua argitu barik, nora joan giñaike illuntasunean...? Lurrak eguzkia bear dau euriaren ondoren, arkaitzak ura damotso lurrari gozotasunean; zugatzak, udabarrian, orria dakar izadi jakintsuaren ardurapian... ta bizitzako arazo guztiak zuzentzeko, gizonaren jakituria bear.

Gizonak nun, aurkituko ete dau zuzenbideko argi ta arazo argi-bidezko jakituria...? Ikastetxeak ta irakasleak bear ditu gizonak. Or, jokatu bear dau giza-semeak bunt argitzen, gar-azur barruan dagozen zulo, ertz ta inguruak jokabide zuzenera eroaten. Danetan arduratsuen gure bizitzan, burua arteztu ta biotza ezitzea da, lurraren mamiña arnari onak emotera ekarteko.

Bide ortatik jokatu egizu gizona, bizitza ederrago bat lortu al izan dagizun giza semeen alkartasunean.

PAULIN

DROGEA, GIZARTEAREN ONDAMENA

Gure gaurko mundu onek ba-dauka zertan arduratu. Arazo asko eta larriak daukaz-eta. Or doguz, adibide lez: Lanik-eza, amaigabeko guda zitalak, zuzentasunik-eza. era guztietako endakeriak, aberatsen eta txiroen arteko ezbardintasun itzelak, gaixotasun latzak: SIDA, esaterako eta DROGEA, besteak beste.

Azken oneri buruz itz egingo dogu gaur.

Len aitatu doguzanak gai kezagarriak dira benetan, bakoitza bere arloan, eta drogeari buruz beste orrenbeste esan lei.

Drogearen gaia, eguneroko barria da, zoritxarrez. Zein egunetan ez dogu entzun edo irakurri zelan mutil edo neska gazte bat il dan drogea larregi artzearren? Goibela benetan. eta txarrena dana, il arte izaten dabezan estualdi eta oiñazeak.

Baiña, ekin dagoigun arazoaren mamiari.

ASIKEREA

Or da kakoa. Zelan asten da, edo beste era baten esanda, zelan sartzen da gazte bat mundu illun orretara?

Nik, epaitegi batean lan egiten dot eta gai onegaz zer ikusi asko daben gauzak ikusten dodaz. Gazteak zelan ondatuten dabezan euren bizitzak eta euren inguruan dagozenenak be: gurasoak eta senideak, bereziki.

Eta itaunduten dautsezunean zergaitik asi ziran droga artzen, batzuk diñoie jakin-miñez egin ebela. beste batzuk, ostera, obeto egoteko. Azkenean, bai batzuk eta bai besteak or gelditzen dira arrapatuta, urten-eziñik.

Asikeran, oso ondo aurkezten jake droga gazteai eta gaiñera ezer ordaindu barik. zaletasuna sortzeko. Baiña denbora aurrera joan-ala, geroago ta droga geiago bear eta orregaz batera diru geiago be bai. Eta, nundik atara? Lenengo ta bein etxetik, gurasoei eskatuz edo kenduz. Orren ostean, kalean... al daben guztia lapurtu edo ostutera joan, bear daben drogea artu eta guzurrezko zoriontasun batean sartuteko.

Orrelan, gauza txar bi jazoten dira: Alde batetik, drogazaleen estutasuna geiagotuten da eta bestetik euren senideena be bai. Orra ondorio txar eta negargarriak.

KONPONBIDEAK

Guzti on ikusita, danok pentsatu izan dogu gure artean: "Orretarako ez ete da urtenbideren bat izango?"

Bakoitzak euki lei berea, baiña. bitartean, or dogu arazoa, aurrez-aurre eta gelditu bank.

Gaur egun. bestalde, drogazaleai lagunduteko bagoduz Ian ederra egiten daben alkarte batzuk: "Bl

ETXEA", "LAGUN ARTEA", "GIZAKIA ELBURU", esaterako.

Talde oneik alegin aundiak egiten ari dira gazte orreik arazoari aurre egin dagioen.

Orretarako, baiña, gaixotuen borondate ona eta sendoa bear-bearrezkoa da, bestela eziñezkoa izango da bere osaketa. Zuk alegin danak egin ziñeiz bera salbatuteko, baiña drogazaleak ez ba'dau ezer egin gura, orduan alper-alperrik izango da dana.

Onetan be, beste gauza bat adierazo bear: Gazte orreik toki oneitatik urtetean, batzuk naiko osatuta egiten dabe. Kalean, ostera, droga-saltzailleak euren zain dagoz eta barriri jausten dira. Eta olan zer egin lei? Orren aurrean, berba guztiak gaiñez dagoz-eta.

ETORKIZUNA

Ondorioz, zein izan leike neska-mutik onein geroa? Erantzun gatzeko itauna, egitan.

Alde batetik, goian aitaturako taldeen laguntzagaz eta jokera sendo ta iraunkor bategaz aukera bat izan leie egoera latz orretatik urten ta bizitzara biurtzeko.

Bestetik, geienetan jazoten dana, droga artzen eta artzen jarraitu, lapurketak egin eta azkenean, ia egunero izparringietan ikusi geinkenez, droga larregi artu eta edozein bazterretan ilda agertu. Amaiera txarra eta illuna, biziak beteta egozan gazte batzuentzako.

AMAIERA

Eta orrela bardin jarraituten dogu, egun batean bai eta bestean be bai. Eta tamalgarriena da jakitea gazte gixajo orreik ilten ari dirala, beste batzuk, illuntasunean dagozanak, geroago ta diru eta almen geiago izan dagiezan.

Ludi onetan, dirua jaun da jaube dala ez dago ezpairik eta bera lortuteko edozer gauza egiten da; makiña bat gazte erailtea, adibidez. Ez zuzenkiro baiña bai drogea erabilliaz. Eta dana borobilduteko, benetako errudunak (erailtzailleak esango neuke nik) aske ta ezin-aberatsago biziten ikusi bear.

Erdal esakera batek diñoanez: "Txarri guztiai elduken jake euren Sanmartina. Kasu onetan alan bete bedi. Eta ez gorrotoz, zuzentasunez baiño. Amets gaizto au ainbat ariñen amaitu daiten, nai ta on amets bat baiño ez dana ondo j aki n.

Danok dakigunez, diruak almen aundia dau eta edozer gauza lortu leike. Zuzentasunari irabaztea be bai?

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"

ISIDOR ETXEBERRIA ADISKIDEARI

AGUR ADISKIDE:

Beste lankide bat joan jaku, Isidor Etxeberria adiskidea.

Aspaldion bere idaz-lanak ugari agertu dira gure ZER onetan, baiña bere zeregiña mundu onetan amaitu ondoren, Aitarenera joan da.

Bilbo'ko Salbatzaillaren parrokian izan zan bere illetea eta, tamalez, ez genduan izan joaterik.

Izan dagiala betiko zoriona!

IRAKASLE DEITUA

Txikitatik izan eban Isidor'ek irakaskintzarako deia eta orretarako dan erlejiño-alkarte batera emon eban bere izena.

Gero alkarte on itzi ondoren, erririk erri eta egoera larrietan izan eban bere maisu-lana egin-bearra. Beti ikasleen maitale, beti gazteak bide onetik aurrera atera naian, beti bere deiari erantzuten.

EUSKALZALE JAIOA

Jaiotzatik izan zala euskal-zale esan geinke, baiña urte garratzetan ezin izan eban bere jokera on agertu.

Orregaitik, aspaldiko urteetan, lana egiteko era izan dauanean, EUSKERAZALEAK alkartean emon eban bere izena eta, Bilbo'tarrai batez be, euskerea irakasten ekin eban.

ERRI-GIZONA

Bere erritik urrin ibilli-bearra izan arren, irakasletza izan be erritik kanpoan ibilteko lana izaten da sarritan, berak bere erria izan eban maite. Erri-zaletasun orren agiri ederrak emon dauz batez be azkenengo urte oneitan: Bere erritik urtendako abade ta lekaideen batzarrak eratuz, bere sendiko senide guztien batzarrak egiñez, bere senideak ikustera sarritan joanez, eta abar.

ERRIAREN AURRERAPENA

Isidor'ek erriaren aurrerapena, batez be gazte-diaren aurrerapena, billatu eban beti. Bere ikasleen artean lenengo ta bein, baiña ez gitxiago Leniz Ibar aretan, bere jaiotzaren giroa agertzen eban tokian, gizon gogoangarri batek, Jose Maria Arizmendi-Arrieta abadeak, egin eban lana goratuz. Ori izan da bere aspaldiko idaz-lañetako gaia.

JARRAITU DAIGUN

Lankide au joakeran, lendik izan dogun ardura bat sartzen jaku sakonago: Gure ZER onetako idazleen uffitasuna.

Egia da aspaldiko egunetan idazle barri batzuk urreratu jakuzala, baiña arazo au arduragarria izango jakula uste dogu.

Bizkaiera maite daben gure gazteak, eta elduak be bai, jesarri beitez idazkiñaren aurrean eta asi beitez idazten, orrelan bakoitxaren jakintza zabal-tzeko eta Bizkai'ko gure euskalki makaldu oneri indar barria emoteko.

Isidor'ek itzi dauan utsunea nok bete izan daite-la.


BERARI ENTZUNA

Abendu onetako lenengo egunetan, bere irakaslaldi baten berba oneik esan ebazan Isidor'ek: "Gure bizia ari batetik dingilizka dago, Jaunaren mendean gagoz". Bere buruari igarten eutson, antza. Orain aria eten egin da eta emen itzi gaitu samintasunez eta itxaropenez.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa